

Pura Vida dokumentala ikusgai Huhezin Iñaki Otxoa hil zela 5.urteurren atarian

2013/05/16

Datorren **asteartean, maiatzak 21, arratsaldeko 19:00etan "Pura Vida" dokumentala proiektatuko da Huheziko Areto nagusian.** Proiekzio hau Eskoriatzako mendi hilearen barruan kokatua dago eta sarrera dohainekoa izango da.

TRAILERRA

Dokumental honetan ikusi daiteke nola 2008ko maiatzaren 23an Annapurna mendian gaixo hil zen **Iñaki Otxoa de Olza** mendizale iruindarra erreskatatzen saiatu ziren. Aurrekaririk gabeko erreskate saiakera izan zen hura. Zoritxarrez, salbamendu taldeko partaide izan zen Alexei Bolotoverrusiarra atzo hil zen Everest mendian.

